

IKO-ko 1. mailako ikasleek hauteskundeak aztertuko dituzte, Mendeberry proiektuaren arabera

2007/05/03

Maiatzaren 27ko **hauteskundeak** direla-eta, datozen zortzi asteetan **Komunikazioko lehen mailako ikasleek** oso bestelako ikasketa plana izango dute, Mendeberry proiektu pedagogikoak ezarritako metodologia baliatuta.

Ikasleak **lau laguneko zortzi taldetan** banatuko dira, eta talde bakoitzak partidu politiko bana aztertuko du, hainbat alderditatik: **Soziologia, Enpresa, Publizitatea, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Komunikazioaren Teoria eta Informatzeko eta Komunikatzeko Teknologia Berriak**.

Aldi horretan, ikasleek bildu egin beharko dute informazioa, sailkatu eta landu, zenbait adituren laguntzarekin. Bi hilabeteon amaieran, **txosten bat** aurkezteaz gain, **aurkezpen bat** eta bost minutuko **dokumentala** egingo dute.

Mendeberry

Datozen zortzi asteotan ikasleek Mendeberry proiektuaren metodologia erabiliko dute ikasteko. Mendeberry da **hezkuntza eredu berri baten izena**, Mondragon Unibertsitatea prestatzen ari dena mende berrirako, eta aplikatzen modu mailakatuan, harik eta **2008an titulu guztietan** erabiliko den arte.

Mendeberry ereduarekin **ikaslea** bihurtzen da **bere ikaskuntzaren protagonista**. Partekatu egin behar du, argudiatu, aztertu, laburbildu, ebaluatu hainbat teoria, eta bilatu irtenbideak aurkezten zaizkion arazoei, baita aurre egin azaltzen zaizkion proiektuei ere. **Irakaslea**, berriz, **ikaskuntzaren gidari** bihurtzen da: informazioa ematen du, zalantzak sortu, gidatu, lagundu eta eragin. Baliabideak ere eskaintzen ditu hausnarketarako.

